

- PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gauzak galtzeaz aspertuta? Denbora asko pasatzen duzu gauzak bilatzen? Zure erantzuna baiezkoa izan bada, badugu zuretzat soluzio bikaina. Teknologiaren bitartez zure gauzak ez galtzeko metodoa aurkitu dugu.

Gure Chip&Find enpresan salduko ditugun produktuak osagarri modernoak eta berritzaileak dira. Politak eta merkeak izateaz gain, abantaila handi bat dute: ez dira galduko. Gure produktuetan chip-ak txertatuko ditugu eta aplikazio baten bidez, produktua galtzen dugunean non dagoen jakiteko gai izango gara. Horretaz gain, chip-ak solteak ere eskuragarri egongo dira, norbera nahi dituen objektuetan txertatzeko.

